

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

300/2017 Foru Agindua, urriaren 25ekoa, maiatzaren 22ko 148/2017 Foru Aginduan (Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketa puntualaren espedientea baldintzekin behin betiko onartu zuena) ezarritako baldintzak betetzea onartzen duena

AURREKARIAK

Lehenengoa. 148/2017 Foru Aginduak, maiatzaren 22koak, Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketa puntualaren espedientea baldintzekin behin betiko onartu zuen, hiri lurzorua eta antolamendu xehatuko zenbait esparru zedarritu eta zerbitzuen azpiegitura bat maila grafikoan txertatzeari buruzko aldaketa, omisioz ez baitzen HAPOn testu bateginean ageri (397/2012 Foru Aginduaren bitartez, abuztuaren 3koa, partzialki behin betiko onartu zena eta 17. ALHAOn, 2014/02/12 datan argitaratu eta indarrean sartu zena.)

Bigarrena. 148/2017 Foru Agindu horrek, ezarritako baldintzak ez zirela funtsezkoak kontuan hartuz, ezarri zuen, behin horiek zuzenduta, espedientea Foru Aldundiari bidaltzea, jendaurreko informaziorako izapide berriaren pean jarri gabe, betiere haren betearazpena adierazteko, izapidetzeko eta argitaratzeko.

Hirugarrena. 2017ko abuztuaren 3an, espedientearen testu bateratua Aldundi honetako Erregistroan sartu zen.

OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da aipatutako foru aginduak ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 148/2017 Foru Aginduan, maiatzaren 22koan, ezarritako baldintzak betetzat jotzea, Ingurumen eta Hirigintza diputatuarena, Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 1. aldaketa puntualaren espedientea baldintzekin behin betiko onartu zuena.

Bigarrena. Ebazpen hau eta berari dagokion hirigintza arautegia argitara ematea ALHAOn.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 25a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

ALDATUTAKO ARAUTEGIA

**ARAMAIO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORREKO
2.1.1.1; 2.1.1.2; 2.1.1.4; 2.1.1.8; ETA 2.1.2.1. ARTIKULUEN BERTSIO BERRIA****2.1.1.1. artikulua. Antolamendu xehatuko IB.01 esparrua****I. MUGAK ETA AZALERA**

Egoitza zona honek biltzen ditu, batetik, Aramaioko Ibarra hirigune historikoa (eta horrek badu bere araudi tresna propioa, hau da, Aramaioko Ibarra Hirigune Historikoaren Eraberritze Integratuko Plan Berezia, EIPB) eta, bestetik, zona mugakide berriak, Aramaioko udal planeamenduaren arau subsidiario zaharretako R-13, R-10 eta GER esparruak; horrek esan nahi du aipatutako araudi tresna handitu eta berrikusi egingo dela.

Hona Eraberritze Integratuko Plan Bereziak (EIPB) izandako izapidetzea:

- 314 Foru Agindua, 1998ko apirilaren 24koa, Aramaioko Ibarra Hirigune Historikoaren Eraberritze Integratuko Plan Bereziaren espedienteari eta araudiari buruzkoa (asteazkena, 1998ko ekainaren 10a, ALHAO, 66. zk.).

- 198/2009 Foru Agindua, apirilaren 15ekoa, Aramaioko Ibarren Eraberritze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa espedientea behin betiko onartzen duena (asteazkena, 2009ko apirilaren 29a, ALHAO, 49. zk.)

Halaber, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburuaren Aramaioko Ibarra hirigune historikoa Eraberritze Integratuko Eremu jotzeko 2000ko urtarrilaren 13ko Aginduaren bidez (asteazkena, 2000ko otsailaren 23a, ALHAO, 23. zk.)

Azalera, gutxi gorabehera: 43.220,69 m².

II. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Aramaioko Ibarra Hirigune Historikoaren Eraberritze Integratuko Plan Bereziak (EIPB) eta haren ondorengo aldaketek onartutakoak jasoko dira.

- Hirigune historikoaren zona mugakide berriak sartu dira; hori dela-eta, aipatu EIPBa handitu eta berrikusi beharko da, honako zehaztapenen arabera:

- Ibarra guneko bizitegi sarea jalkinez beteko dituzten zona estrategiko berriak sartzea.
- Hirigune historikoaren hirigintza eta tipologia balioak errespetatzen dituzten jarduketak burutzea.

- Espazio libreak eta berdeguneak lortzea.

- Eremutik altuerako eraikinak kendu behar dira -5 eta 7 solairuak-, Ibargoia kaleko mendebaldean kokatutakoak; herrigune historikoko batez besteko tipologiarekin alderatuta erabat kontraesankorra da.

- Bidenabar, 74 m²-ko lurzatia ere kendu behar da (4. poligonoko 371), malda handiko mendia-
ren aldapan kokatutakoa, plan orokorrean jasotakoa; ez du inolako helburu publikorik betetzen.

- Andonaga baserria gehitu behar da, 275 lurzatia, 4 poligonoa eta horren sarbidea (572,09 m²), herrigune historikoaren tipologiaren parte baita.

- Matxinkale eta Iturrizuri kaleen artean, Aramaio ibaiaren gaineko oinezkoen pasabideari dagozkion lursailak kendu behar dira.

Lurzoru publikoko zerrenda bat gehitu da, 70 x 11,4 m (799,68 m²) neurrikoa, Pedro Ignacio Barrutia kaleko eraikinaren ekialdean, mendebaldea osatzeko, 1, 3 eta 5 zenbakien bitartez, etorkizuneko parkearen formalizazioa, Nardeaga kaleko ekialdearen, Nardeaga kaleko mendebaldearen eta Pedro Ignacio Barrutia kalearen artean aurreikusitako espazio publikoaren

zeharkako konexioa. Lurzoru horrek eutsi egingo dio espazio libreen zona publikoko kalifikazioari, eta ez dira erabiliko inolako hirigintza aprobetxamendurik sortzeko, ezta har ditzakeen esparruko estandar edo kargak betetzeko ere (hala badagokio).

III. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE OROKORRA / EGITURAZKO ANTOLAMENDURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Lurzoruaren hirigintza sailkapena: HIRI LURZORUA.

2. Antolamendu / kalifikazio orokorra:

Esparru honen antolamendu orokorra Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-3 planoetan ezarri da.

2.1. A.1-01 zona: bizitegiak, hiri herrigune zaharra.

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera hiri herrigune zaharra da eta berari buruzko arauak A.1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 1. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 797,37 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: ez dago batere (0) eta sei (6) eraiki daitezke.

ii. Eraikigarritasuna.

a) Hirigintzako eraikigarritasuna, guztira: 730 m²(t).

(lehendik dagoena barne)

b) Hirigintzako eraikigarritasuna sestra ganean, guztira: 730 m²(t).

(lehendik dagoena barne)

Erabilera bateragarrietarako sestra ganean aplika daitezkeen hirigintzako eraikigarritasuna ehuneko hogeita bost (25) izango da gehienez.

c) Hirigintzako eraikigarritasuna sestrapean, guztira: - m² (t).

iii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilerak eta erabilera bateragarriak 1.5.2.3 artikuluan antolamendu xehatuko "a.1" zonetarako ezarritakoak dira.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.2. A.1-02, A.1-04, A.1-06 eta A.1-07 zonak: bizitegiak, hiri herrigune zaharra.

Erabilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera hiri herrigune zaharrak dira eta beraiei buruzko arauak A.1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 1. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 33.289,23 m².

i. A.1-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 16.966,52 m².

ii. A.1-04 zonako azalera, gutxi gorabehera: 1.498,13 m².

iii. A.1-06 zonako azalera, gutxi gorabehera: 7.759,07 m².

iv. A.1-07 zonako azalera, gutxi gorabehera: 7.065,51 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: Ehun eta berrogeita zortzi daude (148) eta berrogei (40) berri egin daitezke.

ii. Eraikigarritasuna:

a) 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hiri-gune historikoaren EIPBan ezarritakoa.

b) Halaber, berrikustean onartutako aldaketa oro aplikatuko da.

c) Zalantzak sortzen dituzten interpretazioak dauzkaten gaietan edo hutsuneak baldin badaude, 1.5.2.1. eta 1.5.2.3. artikuluetan ezarritakora eta plan orokor honetako B.1 "Arau orokorrak" dokumentuko gainerako arautegi orokorrera joko da.

iii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:**i. Berezko erabilerak eta bateragarriak:**

1. 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hiri-gune historikoaren EIPBan ezarritakoak.

2. Halaber, berrikustean onartutako aldaketa oro aplikatuko da.

3. Zalantzak sortzen dituzten interpretazioak dauzkaten gaietan edo hutsuneak baldin badaude, 1.5.2.2. eta 1.5.2.3. artikuluetan ezarritakora eta plan orokor honetako B.1 "Arau orokorrak" dokumentuko gainerako arautegi orokorrera joko da.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.3. A.1-03 zona: bizitegiak, hiri herrigune zaharra.

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera hiri herrigune zaharra da eta berari buruzko arauak A.1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 1. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 1.008,03 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: ez dago batere (0) eta lau (4) eraiki daitezke

ii. Eraikigarritasuna.

a) Hirigintzako eraikigarritasuna, guztira: 400 m²(t)

b) Hirigintzako eraikigarritasuna sestra gainean, guztira: 400 m²(t)

Erabilera bateragarrietarako sestra gainean aplika daitekeen hirigintzako eraikigarritasuna ehuneko hogeita bost (25) izango da gehienez.

c) Hirigintzako eraikigarritasuna sestrapean, guztira: - m²t

iii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilerak eta erabilera bateragarriak 1.5.2.3 artikuluan antolamendu xehatuko "a.1" zonetarako ezarritakoak dira.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.4. A.1-05 zona: bizitegiak, hiri herrigune zaharra.

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera hiri herrigune zaharra da eta berari buruzko arauak A.1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 1. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 858,43 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: bat (1) dago.

ii. Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena.

iii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilerak eta erabilera bateragarriak 1.5.2.3 artikuluan antolamendu xehatuko "a.1" zonetarako ezarritakoak dira.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.5. E.1.2-01 zona: bide komunikazioak (kaleak).

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera bide komunikazioen (kaleak) sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak E.1.2 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 8. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 2.927,98 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Eraikigarritasuna: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilera errepide bidezko komunikazioa eta garraioa da.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.6. F1-01 zona: hiri parkea.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera hiriko espazio libreen sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak F1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 11. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 355,59 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Eraikigarritasuna: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilerak hiriko aire zabaleko aisialdia eta zabalaldia dira.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.7. G.4-01 zona: gizarte ekipamendua; kirola.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera kiroletarako gizarte ekipamenduaren sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak G zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 13. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 763,37 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Eraikigarritasuna: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilera gizarte ekipamendua da.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.8. G.8-01, G.8-02 eta G.8-03 zonak: gizarte ekipamendua; erlijioa.

Erabilera publikoko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera erlijioa gizarte ekipamenduaren sistema orokorrak dira, eta beraiei buruzko arauak G zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 13. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 2.257,57 m².

i. G.8-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 218,49 m².

ii. G.8-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 1.329,20 m². iii. G.8-03 zonako azalera, gutxi gorabehera: 709,88 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak:

i. Eraikigarritasuna: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilera gizarte ekipamendua da.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.9. G.9-01 zona: gizarte ekipamendua; erakundeak.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera erakundeen gizarte ekipamenduaren sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak G zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 13. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 281,30 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Eraikigarritasuna: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilera gizarte ekipamendua da.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.10. I-01, I-02, I-03, I-04 eta I-05 zonak: lurrazaleko ur jabari publikoko zonak.

Erabilera publikoko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera lurrazaleko ur jabari publikoaren sistema orokorrak dira, eta beraiei buruzko arauak I zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 15. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 681,82 m².

i. I-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 193,31 m².

ii. I-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 80,24 m².

iii. I-03 zonako azalera, gutxi gorabehera: 234,34 m².

iv. I-04 zonako azalera, gutxi gorabehera: 108,20 m².

v. I-05 zonako azalera, gutxi gorabehera: 65,73 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

3. Hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia

Udalaren hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren oinarrizko estrategian esparruan esku hartzeak dauka lehentasuna. Horretarako, plan orokorra burutzeko lehen laurtekoaren barruan gauzatu beharreko jarduketa integratuko esparru bakar bat identifikatu da, Aramaioko Ibarra Hirigune Historikoaren Eraberritze Integratuko Plan Bereziko IB.01 esparru osoaren hedapenaren eta berrikuspenaren bidez.

4. Garapeneko planeamendua prestatzeko eta onartzeko eta lurzoruaren programatzeko epeak ezartzea

Esparruko antolamendu xehatua ezartzeko Aramaioko Ibarra Hirigune Historikoaren Eraberritze Integratuko Plan Bereziko idatzi, izapidetu eta onartu beharko da; plan horretan egikaritze unitate batzuk zehaztuko dira, bai eta behar diren jarduketa sistemak ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 154. eta 159. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe.

Plan berezia prestatzeko eta onartzeko lau (4) urteko epealdia egongo da Plan Orokor hau indarrean jartzen denetik.

Jarduketa integratua programatzeko urbanizazio programa sustatu eta izapidetuko da; Udalari plan berezia indarrean jartzen denetik urtebete (1) pasatu baino lehen aurkeztu beharko zaio.

5. Esparruan dauden sistema orokorren sarea zehaztea lortzeko edota gauzatzeko eta kostua onartzeko.

Ez da ezarri baldintza berezirik.

6. Esparru espazialaren mugapen xehatua berraztertze irizpideak

Ez da ezarri irizpiderik batere, 1.3.2.5 artikuluan ezarritakoa gorabehera.

7. Ingurumena babesteko, natura artatzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak defendatzeko irizpideak

Plan orokor honetako B.3. Ondare historiko eta arkitektonikoa eta espazio naturalak babesteko arauak dokumentua hartuko da aintzat eta, hari aurka egiten ez dion heinean eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBa.

Halaber, 1.5.2.21 artikuluan jasotako ubideetarako atzerapenak eta 1.5.2.25 artikuluan jasotako uholdeak jasateko arriskuaren arabera lurzoruaren erabilera irizpideak bete beharko dira.

8. Sistema orokorren oinarritzko ezaugarriak eta urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea

Sistema orokorren oinarritzko ezaugarriak aginduzko plan berezian ezarriko dira. Hala ere, P-4 planoan ageri diren tokiko zuzkidurak egiturazko antolamendukoak dira. Diseinu zehatza plan berezian ezarriko da.

Urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak 1.4.4.3 artikuluan ezarri dira.

Subsidiarioki, eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa aplikatuko da.

IV. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE XEHATUA / ANTOLAMENDU XEHATURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Hiri-lurzoruaren kategorizazioa PLAN BEREZIAK DEFINITUKO DU, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 56.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Subsidiarioki, berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa beteko da.

Hala ere, eta plan berezian urbanizazioak finkatutako hiri lurzorutzat jotako esparruetan (egonez gero), eraikitzeo unean proposatutako eraikinaren eraikigarritasun haztatuak gauzatuakoa gainditzen duela frogatzen bada, lursail hartzaileak automatikoki lortuko du haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzoruaren kategoria.

2. Antolamendu / kalifikazio xehatua

Esparruaren antolamendu xehatua plan berezian ezarriko da. Subsidiarioki, eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa aplikatuko da.

2.1. Eraikinak, jabaria eta erabilerak

Esparruan zehazten diren gainerako azpizonetako eraikinen, jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak aginduzko plan berezian ezarriko dira.

Derrigorrezko plan bereziaren zehaztapenik ezean, bizitegi azpizonetan 1.5.2.3 artikuluan ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira, eta gainerako azpizonetan 1.5.2 kapituluko artikuluetan ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira.

Subsidiarioki, eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa aplikatuko da.

2.2. Haztapan koefizienteak. Haztatutako eraikigarritasuna eta batez bestekoa

Erabileren haztapan koefizienteak eta eraikigarritasunak (haztatuak eta batez bestekoak) plan berezian ezarriko dira.

Subsidiarioki, eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa aplikatuko da.

2.3. Eraikin edota elementu berezien katalogazioa

Plan orokor honetako B.3. Ondare historiko eta arkitektonikoa eta espazio naturalak babesteko arauak dokumentua hartuko da aintzat eta, hari aurka egiten ez dion heinean eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBa.

2.4. Azpiegituren lerrokadurak, sestrak, ebakidurak eta eskemak

Aginduzko plan berezian finkatuko dira; halakorik ezean, 1.4.4.3 artikulua eta P-7 planoak hartuko dira aintzat.

Subsidiarioki, eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa aplikatuko da.

3. Burutzapenerako araubide iragankorra

Aginduzko plan partzialean ezarri da. Subsidiarioki, eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa aplikatuko da, zona berrietarako izan ezik, haietan ezingo baita jarduketarik burutu.

4. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta plangintzarekin bat ez datozenak

Plan berezian zehaztuko dira. Subsidiarioki, eta berrikusten ez den bitartean, 1998ko apirilaren 24ko 314 Foru Aginduz behin betiko onartutako Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren EIPBan ezarritakoa aplikatuko da.

V. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Esparru honetan ondoko dokumentuetan ezarritako zehaztapenak aplikatu behar dira: uren gaineko legeria; EAeko ur bazterren eta erreken antolamendurako LPS (isurialde kantauriarra); 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskadiko Kultura Ondareari buruzkoa.

2.1.1.2. artikulua. Antolamendu xehatuko IB.02 esparrua

I MUGAK ETA AZALERA

Egoitza zona, eraikuntza irekikoa, Ibarra herriaren iparraldean kokatutakoa; Ibargoia kaleko 22. eta 24. eraikinak hartzen ditu.

Azalera, gutxi gorabehera: 482,34 m².

II. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Garapen eredia bizitegi sarea finkatzeari begira dago.

III. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE OROKORRA / EGITURAZKO ANTOLAMENDURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Lurzoruaren hirigintza sailkapena: HIRI LURZORUA.

2. Antolamendu / kalifikazio orokorra

Eremuaren antolamendu orokorra Hiri Antolamendurako Plan Orokor honen P-3 planoen multzoan jaso da.

2.1. A.4-01 eremua: eraikuntza irekiko bizitegi eremuak

Erabilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera, eraikuntza irekiko bizitegi eremuak dira eta beraiei buruzko arauak A.4 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 3. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 482,34 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: 24 daude, eta ezingo da gehiago eraiki.

ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikuluko honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

3. Hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia

Udalaren hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren oinarritzko estrategian ez da ezarri esparruko jarduketan programazioan eragina duen esku hartzeko jarraibide berezirik. Hiri Antolamendurako Plan Orokorren zuzeneko burutzapena identifikatzen da.

4. Garapeneko planeamendua prestatzeko eta onartzeko eta lurzorua programatzeko epeak ezartzea

Ez da ezarri baldintza berezirik.

5. Esparruan dauden sistema orokorren sarea zehaztea lortzeko edota gauzatzeko eta kostua onartzeko

Ez da ezarri baldintza berezirik.

6. Esparru espazialaren mugapen xehatua berraztertzeko irizpideak

Ez da ezarri irizpiderik batere, 1.3.2.5 artikuluan ezarritakoa gorabehera.

7. Ingurumena babesteko, natura artatzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak defendatzeko irizpideak

Ez da ezarri baldintza berezirik.

8. Sistema orokorren oinarrizko ezaugarriak eta urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea

Urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak 1.4.4.3 artikuluan ezarri dira.

IV. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE XEHATUA / ANTOLAMENDU XEHATURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Hiri-lurzuaren kategorizazioa: URBANIZAZIOAREN BIDEZ FINKATUTAKO LURZORUA.

Hala ere, eraikuntzako lanei ekitean frogatzen bada proposatutako eraikineko eraikigarritasun haztatua dagoeneko gauzatutakoa baino gehiago dela, lursailak kategoria hau lortuko du: haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzorua.

2. Antolamendu / kalifikazio xehatua

Esparru honen antolamendu xehatua Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-4 planoetan ezarri da.

2.1. Eraikinak, jabaria eta erabilerak

a.4-01 azpizonan 1.5.2.5 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

– Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke).

Esparruko gainerako azpizonetan 1.5.2 kapituluko berariazko artikuluetan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira.

2.2. Haztapen koefizienteak. Haztatutako eraikigarritasuna eta batez bestekoa

Esparruko azpizona guztietan haztapen koefiziente hauek aplikatuko dira:

– Babes ofizialeko etxebizitza.....	1,0
– Etxebizitza tasatua.....	1,7
– Etxebizitza librea multzoka.....	3,1
– Etxebizitza libre atxikia.....	4,0
– Etxebizitza librea: familia bakarrekoa.....	4,9
– Etxebizitza tasatuaren garajea.....	0,3
– Etxebizitza librearen garajea.....	0,5
– Hirugarren sektorekoa.....	1,2
– Ekipamendua:.....	1,2
– Industrialak	0,75

Hala ere, uste bada, eta frogatu, ezarritako koefizienteak ez direla egokiak azpizonetako (denak edo batzuk) egungo egoera ekonomiko eta hirigintzarako, koefizienteak doitu edota eguneratu egingo dira egoerara egokitzeko eta berriak ezarriko dira azpizonetan eraikigarritasunak gauzatzeko egin beharreko dokumentuetan.

Azpizona bakoitzeko eraikigarritasuna (haztatua eta batez bestekoa) finkatzeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 35. artikuluko 4. eta 5. puntuetan ezarritakoa aplikatuko da.

2.3. Eraikin edota elementu berezien katalogazioa

Ez dago horrelakorik.

2.4. Azpiegituren lerrokadurak, sestrak, ebakidurak eta eskemak

1.4.4.3 artikuluan eta P-7 planoetan finkatu dira

3. Burutzapenerako araubide iragankorra ez da ezarri.

4. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta plangintzarekin bat ez datozenak

1.4.6.2 eta 1.4.6.3 artikuluetan ezarritako zehaztapenak betetzen dituztenak.

V. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Ez dago horrelakorik.

2.1.1.4. artikulua. Antolamendu xehatuko IB.04 esparrua

I MUGAK ETA AZALERA

Garapen txikiko bizitegi zona, Ibarra herriaren ipar-ekialdean, zeinek Aramaioko udal planeamenduaren arau subsidiario zaharretako R-6 (UE-6), R-7, R-16 eta R-17 esparruak biltzen baititu.

Azalera 12.862,11 m² da gutxi gorabehera.

II. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Garapen eredia bizitegi sarea finkatzeari begira dago.

III. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE OROKORRA / EGITURAZKO ANTOLAMENDURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Lurzorua hirigintza sailkapena: HIRI LURZORUA.

2. Antolamendu / kalifikazio orokorra

Esparru honen antolamendu orokorra Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-3 planoetan ezarri da.

2.1. A.2-01 zona: bizitegiak, landa lurreko herrigune zaharra.

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera landa lurreko herrigune zaharra da, Ibarra hirigunean sartutako tradiziozko motako eraikinak biltzen ditu –Atxigera baserria-, eta berari buruzko arauak A.2 zonatarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 2. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 794,00 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: bat (1) dago eta ezin da eraiki gehiago (0)

ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikuluko honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.2. A.5-01, A.5-02 eta A.5-03 zonak: dentsitate baxuko bizitegi zona.

Erabilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera dentsitate baxuko bizitegi zonak dira eta beraiei buruzko arauak A.5 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 4. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 8.413,61 m².

i. A.5-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 5.927,71 m².

ii. A.5-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 983,41 m².

iii. A.5-03 zonako azalera, gutxi gorabehera: 1.502,49 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: hemeretzi (19) daude eta hiru (3) eraiki daitezke.

ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.3. E.1.2-01 zona: bide komunikazioak (kaleak).

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera bide komunikazioen (kaleak) sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak E.1.2 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 8. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 1.504,93 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.4. E.2-01 zona: Oinezkoentzako edota txirrindularientzako zona publikoak

Bizikleta edota oinezkoek erabiltzeko erabilera publikoko zona orokorra; ez da eraikuntzarik baimentzen, salbu eta zonako jarduera propioa garatzera bideratutakoa, bide komunikazioko sistema orokor gisa kalifikatutakoa; araudia E.2 zonetako tipologietarako izaera orokorrekin ezarritakoa da, 1.3.2.4 artikuluko 9. puntuan definitutakoa.

D. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 68,62 m².

E. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Eraikigarritasuna: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

F. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilera txirrindularitza edota errepide bidezko komunikazioa da.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.5. I-01 eta I-02 zonak: lurrazaleko ur jabari publikoko zonak.

Erabilera publikoko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera lurrazaleko ur jabari publikoaren sistema orokorrak dira, eta beraiei buruzko arauak I zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 15. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 2.080,95 m².

i. I-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 1467,23 m².

ii. I-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 618,58 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

3. Hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia

Udalaren hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren oinarrizko estrategian ez da ezarri esparruko jarduketan programazioan eragina duen esku hartzeko jarraibide berezirik. Hiri Antolamendurako Plan Orokorren zuzeneko burutzapena identifikatzen da.

4. Garapeneko planeamendua prestatzeko eta onartzeko eta lurzoria programatzeko epeak ezartzea

Ez da ezarri baldintza berezirik.

5. Esparruan dauden sistema orokorren sarea zehaztea lortzeko edota gauzatzeko eta kostua onartzeko.

Ez da ezarri baldintza berezirik.

6. Esparru espazialaren mugapen xehatua berraztertze irizpideak

Ez da ezarri irizpiderik batere, 1.3.2.5 artikuluan ezarritakoa gorabehera.

7. Ingurumena babesteko, natura artatzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak defendatzeko irizpideak

Ez da ezarri baldintza berezirik.

8. Sistema orokorren oinarrizko ezaugarriak eta urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea

Urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak 1.4.4.3 artikuluan ezarri dira.

IV. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE XEHATUA / ANTOLAMENDU XEHATURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Hiri-lurzoruaren kategorizazioa: URBANIZAZIOAREN BIDEZ FINKATUTAKO LURZORUA.

Hala ere, eraikuntzako lanei ekitean frogatzen bada proposatutako eraikineko eraikigarritasun haztatua dagoeneko gauzatutakoa baino gehiago dela, lursailak kategoriatik hau lortuko du: haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzoria.

2. Antolamendu / kalifikazio xehatua

Esparru honen antolamendu xehatua Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-4 planoetan ezarri da.

2.1. Eraikinak, jabaria eta erabilerak

a.2 azpizonetan 1.5.2.4 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

— Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke).

a.5.1 azpizonetan 1.5.2.6 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

— Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke).

a.5.2 azpizonetan 1.5.2.7 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

– Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke), a.52-04 azpizonarentzat izan ezik, harentzat P-5 planotik aterako baita.

Esparruko gainerako azpizonetan 1.5.2 kapituluko berariazko artikuluetan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira.

2.2. Haztapen koefizienteak. Haztatutako eraikigarritasuna eta batez bestekoa

Esparruko azpizona guztietan haztapen koefiziente hauek aplikatuko dira:

- Babes ofizialeko etxebizitza..... 1,0
- Etxebizitza tasatua..... 1,7
- Etxebizitza librea multzoka..... 3,1
- Etxebizitza libre atxikia..... 4,0
- Etxebizitza librea: familia bakarrekoa..... 4,9
- Etxebizitza tasatuaren garajea..... 0,3
- Etxebizitza librearen garajea..... 0,5
- Hirugarren sektorekoa..... 1,2
- Ekipamendua:..... 1,2
- Industriala 0,75

Hala ere, uste bada, eta frogatu, ezarritako koefizienteak ez direla egokiak azpizonetako (denak edo batzuk) egungo egoera ekonomiko eta hirigintzakerako, koefizienteak doitu edota eguneratu egingo dira egoerara egokitzeko eta berriak ezarriko dira azpizonetan eraikigarritasunak gauzatzeko egin beharreko dokumentuetan.

Azpizona bakoitzeko eraikigarritasuna (haztatua eta batez bestekoa) finkatzeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 35. artikuluko 4. eta 5. puntuetan ezarritakoa aplikatuko da.

2.3. Eraikin edota elementu berezien katalogazioa

Ez dago horrelakorik.

2.4. Azpiegituren lerrokadurak, sestrak, ebakidurak eta eskemak

1.4.4.3 artikuluan eta P-7 planoetan finkatu dira

3. Burutzapenerako araubide iragankorra

ez da ezarri.

4. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta plangintzarekin bat ez datozenak

1.4.6.2 eta 1.4.6.3 artikuluetan ezarritako zehaztapenak betetzen dituztenak.

V. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Esparru honetan ondoko dokumentuetan ezarritako zehaztapenak aplikatu behar dira: uren gaineko legeria eta EAEko ur bazterren eta erreken antolamendurako LPS (isurialde kantauriarra).

2.1.1.8 artikulua Antolamendu xehatuko IB.08 esparrua

I. MUGAK ETA AZALERA

Garapen txikiko bizitegi zona, Ibarra herriaren mendebaldean, zeinek Aramaioko udal planeanamenduaren arau subsidiario zaharretako R-2 (UE-2) R-4 (UE-4), R-8, R-9, R-18 esparruak eta zenbait sistema orokor biltzen baititu, baita Ibargoia kaleko 11, 13, 15 eta 17 eraikinak ere.

Azalera, gutxi gorabehera: 30.744,23 m².

II. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURU OROKORRAK

- Garapen eredia bizitegi sarea finkatzeari begira dago.

III- HIRIGINTZAKO ARAUBIDE OROKORRA / EGITUREN ANTOLAMENDURAKO ZEHAZTA-PENAK

1. Lurzoruaren hirigintza sailkapena: HIRI LURZORUA.

2. Antolamendu / kalifikazio orokorra

Esparru honen antolamendu orokorra Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-3 planoetan ezarri da.

2.1. A.2-01 eta A.2-02 zonak: bizitegiak, landa lurreko herrigune zaharra.

Erabilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera landa lurreko herrigune zaharrak dira eta dagozkien motak familia bakarreko eta familia biko bizitegiak dira; beraiei buruzko arauak A.2 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 2. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 1.207,48 m².

i. A.2-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 800,68 m².

ii. A.2-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 406,80 m².

B. Zonetan eraikitzeko baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: hiru (3) daude eta ezin da eraiki gehiago (0).

ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.2. A.5-01, A.5-02 eta A.5-03 zonak: dentsitate baxuko bizitegi zona.

Erabilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera dentsitate baxuko bizitegi zonak dira eta beraiei buruzko arauak A.5 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 4. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 15.972,34 m².

i. A.5-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 3.384,41 m².

ii. A.5-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 5.102,55 m².

iii. A.5-03 zonako azalera, gutxi gorabehera: 7.485,38 m².

B. Zonetan eraikitzeko baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: ehun eta bederatz (109) daude eta ezin da eraiki gehiago (0).

ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.3. A.4-01 eremuak: eraikuntza irekiko bizitegi eremuak

Erabilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera, eraikuntza irekiko bizitegi eremuak dira eta beraiei buruzko arauak A.4 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 3. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 1.546,73 m².

i. A.4-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 1.546,73 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak:

- i. Etxebizitza kopurua, gehienez: berrogei (40) daude eta ezin da eraiki gehiago (0).
- ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.4. E.1.2-01 eta E.1.2-02 zonak: bide komunikazioak (kaleak).

Erabilera publikoko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera bide komunikazioen (kaleak) sistema orokorrak dira, eta beraiei buruzko arauak E.1.2 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 8. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 1.345,10 m².

- i. E.1.2-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 685,38 m².
- ii. E.1.2-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 659,72 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.5. F.1-01 zona: hiri parkea.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera hiriko espazio libreen sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak F.1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 11. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 4.139,42 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.6. G.1-01 zona: gizarte ekipamendua; irakaskuntza.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera irakaskuntzako gizarte ekipamenduaren sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak G zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 13. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 1.786,22 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.7. G.4-01 zona: gizarte ekipamendua; kirola.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera kiroleterako gizarte ekipamenduaren sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak G zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 13. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 3.251,87 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak: artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu zehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.8. I-01, I-02, I-03, I-04, I-05 eta I-06 zonak: lurrazaleko ur jabari publikoko zonak.

Erabilera publikoko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera lurrazaleko ur jabari publikoaren sistema orokorrak dira, eta beraiei buruzko arauak I zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 15. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 1.495,07 m².

i. I-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 155,14 m².

ii. I-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 341,33 m².

iii. I-03 zonako azalera, gutxi gorabehera: 361,89 m².

iv. I-04 zonako azalera, gutxi gorabehera: 76,31 m².

v. I-05 zonako azalera, gutxi gorabehera: 193,29 m².

vi. I-06 zonako azalera, gutxi gorabehera: 367,11 m².

B. Zonetan eraikitzeko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

3. Hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia

Udalaren hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren oinarrizko estrategian ez da ezarri esparruko jarduketan programazioan eragina duen esku hartzeko jarraibide berezirik. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren zuzeneko burutzapena identifikatzen da.

4. Garapeneko planeamendua prestatzeko eta onartzeko eta lurzorua programatzeko epeak ezartzea

Ez da ezarri baldintza berezirik.

5. Esparruan dauden sistema orokorren sarea zehaztea lortzeko edota gauzatzeko eta kostua onartzeko.

Ez da ezarri baldintza berezirik.

6. Esparru espazialaren mugapen xehatua berraztertzeko irizpideak

Ez da ezarri irizpiderik batere, 1.3.2.5 artikuluan ezarritakoa gorabehera.

7. Ingurumena babesteko, natura artatzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak defendatzeko irizpideak

Ez da ezarri baldintza berezirik.

8. Sistema orokorren oinarrizko ezaugarriak eta urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea

Urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak 1.4.4.3 artikuluan ezarri dira.

IV. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE XEHATUA / ANTOLAMENDU XEHATURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Hiri-lurzoruaren kategorizazioa: URBANIZAZIOAREN BIDEZ FINKATUTAKO LURZORUA.

Hala ere, eraikuntzako lanei ekitean frogatzen bada proposatutako eraikineko eraikigarritasun haztatua dagoeneko gauzatutakoa baino gehiago dela, lursailak kategoria hau lortuko du: haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzorua.

2. Antolamendu / kalifikazio xehatua

Esparru honen antolamendu xehatua Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-4 planoetan ezarri da.

2.1. Eraikinak, jabaria eta erabilerak

a.2 azpizonetan 1.5.2.4 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

- Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke).
- Eraikin motak: bi etxebizitzako eraikinean dagoen etxebizitza edo bi familiako etxebizitza (B mota).

a4.1 eta a.5.1 arteko azpizonetan 1.2.5.5 eta 1.5.2.6 artikuluetan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

- Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke).

Esparruko gainerako azpizonetan 1.5.2 kapituluko berariazko artikuluetan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira.

2.2. Haztapen koefizienteak. Haztatutako eraikigarritasuna eta batez bestekoa

Esparruko azpizona guztietan haztapen koefiziente hauek aplikatuko dira:

- Babes ofizialeko etxebizitza..... 1,0
- Etxebizitza tasatua..... 1,7
- Etxebizitza librea multzoka..... 3,1
- Etxebizitza libre atxikia..... 4,0
- Etxebizitza librea: familia bakarrekoa..... 4,9
- Etxebizitza tasatuaren garajea..... 0,3
- Etxebizitza librearen garajea..... 0,5
- Hirugarren sektorekoa..... 1,2
- Ekipamendua:..... 1,2
- Industrialia 0,75

Hala ere, uste bada, eta frogatu, ezarritako koefizienteak ez direla egokiak azpizonetako (denak edo batzuk) egungo egoera ekonomiko eta hirigintzarako, koefizienteak doitu edota eguneratu egingo dira egoerara egokitzeko eta berriak ezarriko dira azpizonetan eraikigarritasunak gauzatzeko egin beharreko dokumentuetan.

Azpizona bakoitzeko eraikigarritasuna (haztatua eta batez bestekoa) finkatzeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 35. artikuluko 4. eta 5. puntuetan ezarritakoa aplikatuko da.

2.3. Eraikin edota elementu berezien katalogazioa

Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "Ondare historiko-arkitektonikoa eta espazio naturalak babesteko arauak (3. liburua)" dokumentuan arautu da.

2.4. Azpiegituren lerrokadurak, sestrak, ebakidurak eta eskemak

1.4.4.3 artikuluan eta P-7 planoetan finkatu dira

3. Burutzapenerako araubide iragankorra ez da ezarri.

4. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta plangintzarekin bat ez datozenak

1.4.6.2 eta 1.4.6.3 artikuluetan ezarritako zehaztapenak betetzen dituztenak.

V. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Esparru honetan ondoko dokumentuetan ezarritako zehaztapenak aplikatu behar dira: uren gaineko legeria; EAeko ur bazterren eta erreken antolamendurako LPS (isurialde kantauriarra); 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskadiko Kultura Ondareari buruzkoa; 20/1990 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa.

2.1.2.1 artikulua Antolamendu xehatuko IB.12 esparrua (Errekazabal)**I. MUGAK ETA AZALERA**

Eraikuntza irekiko bizitegi sektorea, Ibarra herriaren ipar-mendebaldean; hirigunearen luzapen gisa proiektatu da, Gantzaga ibaian gora Errekazabal zonaraino.

Azalera, gutxi gorabehera: 29.646,95 m².

II. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Eremua eratzea, zehaztapen eta parametro berriekin, egungo egoera desblokeatu eta bizitegi sare finkatuaren barruan esparru baten bideragarritasuna bermatu xedez.

- Dauden eta proiektatu diren eraikinak Ibarra gunean integrazioa eta irisgarritasuna hobetzeko bideak burutu ahal izatea, baita A-4025 foru errepidearekiko komunikazioa ere.

- Esparrua Gantzaga ibaiaren mugakidea denez, ertz bietan berdegunea lor daiteke, uholdeak jasateko arriskurik handiena duten zonak babesteko, ertz horien ingurumena leheneratzeko eta natura guneak sortzeko, esparruari balioa ematen laguntzeko.

III. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE OROKORRA / EGITURAZKO ANTOLAMENDURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Lurzoruaren hirigintza sailkapena: SEKTORIZATUTAKO LURZORU URBANIZAGARRIA.

2. Antolamendu / kalifikazio orokorra

Esparru honen antolamendu orokorra Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-3 planoetan ezarri da.

2.1. A.4-01 eta A.4-02 zonak: eraikuntza irekiko bizitegi eremuak.

Era bilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera, eraikuntza irekiko bizitegi eremuak dira eta beraiei buruzko arauak A.4 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 3. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 21.728,94 m².

i. A.4-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 12.776,10 m².

ii. A.4-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 8.952,84 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: ez dago batere (0) eta hirurogeita hamabi (72) eraiki daitezke.

ii. Eraikigarritasuna.

a) Hirigintzako eraikigarritasuna, guztira: 11.200 m²t.

b) Hirigintzako eraikigarritasuna sestra gainean, guztira: 6.880 m²t, babes ofizialeko etxebizitarako.

Era bilera bateragarrietarako sestra gainean aplika daitekeen hirigintzako eraikigarritasuna ehuneko hamar (10) izango da gehienez.

c) Hirigintzako eraikigarritasuna sestrapean, guztira: 4.320 m²t.

iii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilerak eta erabilera bateragarriak 1.5.2.5 artikuluan antolamendu xehatuko "a.4" zonetarako ezarritakoak dira.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.2. F1-01 zona: hiri parkea.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera hiriko espazio libreen sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak F1 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 11. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 6.240,51 m².

B. Zonan eraikitzeke baldintzak: artikuluko honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilerak hiriko aire zabaleko aisialdia eta zabalaldia dira.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.3. I-01 zona: ur jabari publikoa.

Erabilera publikoko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera, ur jabari publikoaren sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak I zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 15. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 1.677,50 m².

B. Zonan eraikitzeke baldintzak: artikuluko honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak:

i. Berezko erabilera sektorearen legerian ezarrita dago.

ii. Jabariaren eta erabileren inguruko gainerako baldintzak artikuluko honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

3. Hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia

Udalaren hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren oinarrizko estrategian esparruan esku hartzeak ez dauka lehentasunik. Horretarako jarduketa integratuko esparru bakarra identifikatu da (AI.04); Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren burutzapen aldiko bi laurtekoetan garatuko da.

4. Garapeneko planeamendua prestatzeko eta onartzeko eta lurzoruaren programatzeko epeak ezartzea

Esparruko antolamendu xehatua ezartzeko plan partziala idatzi, izapidetu eta onartu beharko da; plan horretan egikaritze unitate bat zehaztuko (edo batzuk), bai eta behar diren jarduketa sistemak ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 154. eta 159. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe.

Plan partziala prestatzeko eta onartzeko urtebeteko (1) epealdia egongo da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra indarrean jartzen denetik.

Jarduketa integratua programatzeko urbanizazio programa sustatu eta izapidetuko da; Udalari plan partziala indarrean jartzen denetik urtebete (1) pasatu baino lehen aurkeztu beharko zaio.

5. Esparruan dauden sistema orokorren sarea zehaztea lortzeko edota gauzatzeko eta kostua onartzeko.

Lurrak lortzeko, burutzeko eta kostua onartzeko, F.1-IB.12-01 zona eratu da, hain zuzen ere jarduketa integratuari atxikitako sistema orokorra.

Gainera esparruko urbanizazio kargetan ondoko hauek sartzen dira: ura hornitzeko eta saneatzeko sistema orokorrak konektatzea, eta behar denean handitzea, sektore honetako beharrianak asetzeko.

6. Esparru espazialaren mugapen xehatua berraztertzeke irizpideak

Ez da ezarri irizpiderik batere, 1.3.2.5 artikuluan ezarritakoa gorabehera.

7. Ingurumena babesteko, natura artatzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak defendatzeko irizpideak

Eremua ibai ibilgu baten ondoan planteatu denez, erreka ertzetako landaretza babestea izango da ingurumen irizpide estrategikoa, baita ibaiaren alde bakoitzera gutxienez hamabi (12) metro inolako eraikuntzarik gabe uztea ere. Lursailaren zati honetan landaredia lehengoratu eta landatuko da, ibilguen eta hiri eremu berrietan egingo diren jardueren artean moteltzeko pantaila edo iragazi berde bat egon dadin. Halaber, derrigorrez onez zaindu eta babestu beharko dira haltzadi mistoa (haltzak, lizarrak, astigarrak, haritzak eta gaztainondoak, etab.) osatzen duten zuhaitz ale autoktonoak eta F.1-01 zonan dauden zuhaixka lerrokadurak, eta haiek zonan planteatutako urbanizazioarekin eta eraikin berriekekin txertatzea bilatuko da. Era berean, F.1-01 zonan galarazita daude eraikuntza erabilerak eta urbanizazio jarduketa bigunagoak bilatuko dira, natura ingurune horren hauskortasunarekin bat datozenak, hain zuzen ere.

Bestalde, A-4025 foru errepidearen lotura moldatzeak harizti batean eragina izan dezake. Jarduketa horren eragina ezinbestean jaso behar ez duten zuhaitzak eta zuhaixkak obra hasi aurretik markatu eta zedarritu beharko dira, eta obrak egiten diren bitartean langileek eta obra makineriak eraginik sorraraziko ez dutela bermatu beharko da.

Ondoren, bidearen egokitzapenak erasango dion harizti eremuaren tamaina bereko eremu bat zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak jarriz leheneratu beharko da. Leheneratze hori sektoreko espazio libreen sistema orokorrerako zonaren barruan burutuko da, espezie bakarra lerroan landatzea saihestuz eta espezie aniztasuna lehenetsiz. Zehazki, tamaina handiagoko aleak erabiliz eta tarte handiagoak utziz egindako landaketa baino, ale gazteen landaketa trinkoa hobetsi beharko da.

Halaber, 1.5.2.21 artikuluan jasotako ubideetarako atzerapenak eta 1.5.2.25 artikuluan jasotako uholdeak jasateko arriskuaren arabera lurzorua erabilera irizpideak bete beharko dira.

Halaber, garapen planteamenduek ingurumena lehengoratzeko eta paisaia egokitzeko proiektu xehatuak aurkeztu beharko dituzte. Era berean, proiektu horiek Uraren Euskal Agentziaren oniritzia beharko dute, eta URAn izapidetu beharreko obren baimenak lortzeko beharrezkoak izango dira.

Azkenik, uraren jabari publikoan edo horren zortasun eta zaintza zonetan eragina izan dezaketen obrak edo lanak hasi baino lehen, dagozkion obra baimenak eduki behar dira. Baimen horiek Uraren Euskal Agentziako Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoan izapidetu beharko dira.

8. Sistema orokorren oinarrizko ezaugarriak eta urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea

Sistema orokorren oinarrizko ezaugarriak aginduzko plan partzian ezarriko dira. Hala ere, P-4 planoan ageri diren tokiko zuzkidurak egiturazko antolamendukoak dira. Diseinu zehatza plan partzian ezarriko da.

Urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak 1.4.4.3 artikuluan ezarri dira.

IV. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE XEHATUA / ANTOLAMENDU XEHATURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Antolamendu / kalifikazio xehatua

Esparruaren antolamendu xehatua ezartzeko aginduzko plan partziala hartuko da aintzat.

1.1. Eraikinak, jabaria eta erabilerak

Esparru honetan zehazten diren bizitegi azpizonetako eraikinen, jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak aginduzko plan partzian ezarriko dira, planeamendu orokorreko maila eta arau lotespen hauekin:

– Eraikin motak: familia anitzeko eraikin orokorreko familia anitzeko etxebizitza (D.2 mota) a.4 azpizonentzat

– Eraikinaren profila edo gehieneko solairu kopurua: IV(a edo b)/-

Esparru honetan zehazten diren gainerako azpizonetako eraikinen, jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak aginduzko plan partzian ezarriko dira.

Plan bereziaren zehaztapenik ezean, bizitegi azpizonetan 1.5.2.5 artikuluan ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira (D.2 motako etxebizitzaren kasuan) eta gainerako azpizonetan 1.5.2 kapituluko berariazko artikuluetan ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira.

1.2. Haztapen koefizienteak. Haztatutako eraikigarritasuna eta batez bestekoa

Erabileren haztapen koefizienteak eta eraikigarritasunak (haztatuak eta batez bestekoak) plan partzian ezarriko dira.

1.3. Eraikin edota elementu berezien katalogazioa

Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko "Ondare historiko-arkitektonikoa eta espazio naturalak babesteko arauak (3. liburua)" dokumentuan arautu da.

1.4. Azpiegituren lerroak, sestrak, ebakidurak eta eskemak

Aginduzko plan partzian finkatuko dira; halakorik ezean, 1.4.4.3 artikulua eta P-7 planoak hartuko dira aintzat.

2. Burutzapenerako araubide iragankorra

Aginduzko plan partziala onartu arte ezin da egin inolako jarduketarik esparruan.

3. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta plangintzarekin bat ez datozenak

Plan partzian zehaztuko dira.

V. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Esparru honetan ondoko dokumentuetan ezarritako zehaztapenak aplikatu behar dira: uren gaineko legeria; EAEko ur bazterren eta erreken antolamendurako LPS (isurialde kantauriarra); 7/1990 Legea, uztailearen 3koa, Euskadiko Kultura Ondareari buruzkoa; 20/1990 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa.